

HELDUTASUNERANZKO BIDEAN

Saioa Ventura Iturralde

Eugi (Esteribar)

Ama, errealitatearen begietara
Zuzenean begiratzea
Zaila egiten zait sarritan.
Koldarkeria da errudun.
Gogorregia zait
Errealitateari begirada mantentzea.
Errealitatea bere baitan gogorregia baita,
Krudela eta gordina.
Ez du inongo gupidarik.

Harengandik ihes egiteko modu bakarra
Amets egitea da.
Ametsetan salbu sentitzen naiz,
Gaitzetatik at.
Haurtzaroan bizitzak amets bat zirudien,
Begiak zapi zuri batez estaliak nituen.
Baina behin zapia kenduta,
Heldutasuna helduta,
Begiak irekitzea
beste erremediorik ez dago.
Eta ireki nituenean

begi-bistan zegoen sufrimendua.
Nonahi.

Lasai alaba,
Badakit biderik errazena gezur batean bizitzea dela,
Matrixen bizitzea.
Antzerki ero honetan
itsuaren papera antzeztea.
Baina jakin ezazu,
errealitatearen begien koloreak
ez duela parekorik.
Hain argia eta hain iluna,
Hain beldurgarria eta erakargarria.
Errealitatea bat izanda ere,
Bakoitzak kolore ezberdina
ikusten duela diote.

Ausart zaitetz,
Une batez
Gutxienez,
Errealitatearekin aurrez aurre topatzean.
Begietara zuzenean so egiten,
Zure kolorea zein den topatzen.
Harrituko zaitu, seguru.

Zurea de erabakia,
Hor duzu zapia,
Estali berriz begia,
Edo bilatu zure egia,
Zure argia.